



Ricardo Gayol Hijos del Maiz GKEko kidea, Ana Urchueguia alkatea eta Lourdes Acevedo Gizarte Zerbitzuetako batzorde burua hitzarmena sinatzen.

Kooperazioa NeJapan Nejava El Salvadorreko herrialdean 2002. urtea geroztik Lasarte-Oriako udalak Hijos del Maiz Gobernuz Kanpoko Erakundearen bidez diru kopuru garrantzitsua, 38. 835 euro, bideratzen ditu bertan burutzen diren gazteentzako proiektuak bultzatzeko. Artea, kultura, hezkuntza, kirolak... hau guztia gazteak maretatik, hau da gazte talde gatazkatsuetatik, urrundu eta etorkizunerako presta daitezten. Atzo, Hijos del Maiz GKEko Ricardo Gayol eta Francisco Villegasek Lasarte-Oriara bisita egin zuten. Ana Urchueguia alkatea, zinegotziak eta komunikabideak bildu gintuzten pleno aretoan eta elkarteak aurrera eramandako Froilan Elespe eskola proiektua azaltzeaz gain, etorkizunekoan egingo zirene ere mintzo ziren. Gayolek azaldu zuen bezala, "proiektu hau hezkuntzan oinarritutako eraldaketa da eta, beraz, epe luzekoa". Azalpenen ostean, Ricardo Gayol Gobernuz kanpoko erakunde ordezkariek eta Lasarte-Oriako alkateak laguntza hitzarmena sinatu zuten. Proiektuei buruzko informazio gehiago asteleheneko TXINTXARRiko zenbakian emango dugu. •

“Demokrazia Orain” leloarekin bihar Bilbon egingo den manifestaziorako Ezker Abertzalearen deialdia

Bart gauean hasi zen ofizialki martxoaren 1ean Euskal Autonomi Elkartearen egingo diren hauteskundeetako kanpaina eta alderdi politiko ezberdinek botua eskatuz lehen kartelak jarri zituzten. Jakina da Ezker Abertzaleak ez duela hauteskundeetan

aurkezteko aukerarik izan eta hori salatzeke Lasarte-Oriako Ezker Abertzaleak asteburu honetan burutuko diren zenbait aldarrikapen eta kanpainako ekitaldietan parte hartzeke deia luzatu die herritarrei.

Batetik dei egin dio Lasar-

te-Oriako herritar orori, bihar larunbata, Demokrazia Orain lelopean, Bilbon burutuko den manifestazio nazionalera joateko.

Autobus zerrendak Artizar taberna, Zabaletako dendan, eta Xirimiri tabernan jarrita daude eta autobusa

arratsaldeko 15:30ean Txiki-ko geltokitik aterako da.

Bestalde, igandea 15, eguerdiko 14,00etan kanpainako herri bazkaria (babarrunjana) antolatu dute Xirimiri elkartearen. Zerrenda izena emateko, Xirimiri tabernan dago. •



Haize Berria Saria Nora Izagirrearen diseinuei /5

Nora Izagirre diseinatzaileak Haize Berria saria jaso berri du. Duela bi urte eta erdi ekin zion bere bildumak merkaturatzeari Maitane ahizparekin batera. •

GIZARTEA ■ 3


27 milioi eurotik gora herriko ur zikinak Loiolara bideratzeko egitasmoarentzat

GIZARTEA ■ 5

Vidas Minadas, diez años erakusketa sentsibilizazio bide

KIROLA ■ 6

Aldaz H. K. taldea lehen postuaren bila Areto Futboleko Euskal Ligan



SUGATE Sukaldeak

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak



vegasa
Beti lehenengo egunean bezala



plan renove + %10 desk.



Pintore kalea 5 • Tel./faksa: 943 361471 • LASARTE-ORIA
e-maila: sugate@euskalnet.net

Zorion-agurrak



Julen
Zorionak familiaren partetik. Zortzi mila muxu handi!



Miriam
Zorionak polita! Hamaika muxu handi Asier eta gurasoen partetik.



Lander
Txokolatzeko zazpi muxu handi! Gurasoak, Jon eta Lorenaren partetik.



Mari Jose
Zorionak eta muxu handi bat! Markel, Gorka eta aitaxoren partetik.



Saioa
Zorionak! Hamabi muxu handi eta ondo pasa zure egunean. Familiaren partetik.



Eneko
Zorionak guapo! Zure neskenaren partetik!



Ane Bego
Zorionak eta 13 muxu handi famili guztiaren partetik.



Amagoia
Zorionak ama! Muxu handi bat. Irati, ama, aita eta Haizearen partetik.



Marta eta Sandra
Zorionak bieii! Zuen gurasoen eta Hectorren partetik. Ondo pasa!



Beñat
Zer uste duzu libratuko zinela? Udarako krema prest? Zorionak Sargento Morales. Muxu bat.



Naroa
Zorionak etxeko printzesari eta 5 muxu handi aita, ama, eta Julen partez.



Mailu
Zorionak guapa! Adin horrekin eta horrela habili! Eta eskerrak! Ez aldatu, berdin segi!

Guardiak

- Ostrala, 13**
Rodríguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774
- Larunbata, 14**
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529
- Igandea, 15**
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529
- Astelehena, 16**
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529
- Asteartea, 17**
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549
- Asteazkena, 18**
Urbisondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567
- Osteguna, 19**
Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Telefonoak

- Osasuna / Larrialdiak**
- Osasun Zentroa ... 943 007960
- DYA ... 943 464622
- Gurutze Gorria ... 943 363953
- Udaltzainak ... 943 362442
- Ertzaintza ... 943 288888
- SOS Deiak ... 112
- Udala**
- Erregistroa ... 943 376055
- Euskarako Zerbitzua 943 376184
- Kiroldegia ... 943376182
- Kulturetxea ... 943376181
- Bakezko epaitegia ... 943371629
- Zerbitzu Sozialak ... 943376179
- Zentro Zibikoa ... 943363958
- KIUB ... 943361605
- Udal euskaltegia ... 943361621
- Obrak eta zerbitzuak ... 943 376180

Heriotzak

Bruna Valdeolmillos Paredes, otsailaren 10ean 90 urte zituela

Maria Isabel Carreño Sanz, otsailaren 5ean 94 urte zituela

Iñaki Dorronsoro Uranga, otsailaren 8an 44 urte zituela

Rosario Amenabar Etxeberria, otsailaren 6ean 79 urte zituela

Pablo Dieguez Palomo, otsailaren 6ean 65 urte zituela

Azoka txikia

Eskaientza inmobiliarioak

• Logela bat alokatzen da etxebizitzaren batean, Zumaburuko auzoan, Lasarte-Orian. Harremanetan jartzeko zenbakia, 600 612 085

• Urbarten garaje marra bat alokatzen da. Harremanetarako zenbakia: 943 363 524

• Logela bat alokatzen da Lasarte-Oriako erdialdean. Pertsona garbia eta ez erretzeak bilatzen da. Alokairua 230 euro dira eta gastuak aparte. Harremanetarako zenbakia, 686 932 714.

• Landak: Vieux Boucau-n (Le Boulanger urbanizazioan) 4 pertsonentzako estudio bat alokatzen da Aste Santuan eta Pazko astean. Tel.: 943 370534, gauzez.

Salerosketak

• Inauteritako mozorroak salgai ditut: Asterix-Obelix, iratxoak... Informazioa 638 421 713 tel.-an.

Oharretarako:

Tel.: 943 366858 • Geltoki kalea 4 • txintxarri@ttakun.com
www.txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com

• Mutilentzako jaunartzeak jantzi berriak eta oso prezio onean saltzen ditut. 60 eurotik aurrera. Telefonoa: 688 667 982.

Lan-eskaientzak

• Neska eskaientzen da umeak zaintzeko. Tel.: 688 687 285.

Lan-eskariak

• Pertsona bat eskaientzen da etxeko lanak egiteko, bai haur baita aitona-amonak zaintzeko, e.a. Telefonoak: 943 361985 edo 659 590217.

• Neska bat eskaientzen da sukaldari laguntzaile gisa aritzeko lanean edo haurrak zaintzeko. Tel.: 669 217 126.

• Neska arduratsua eta esperientziarekin eskaientzen da etxeko lanak egiteko edo/eta haurrak zein helduak zaintzeko arratsaldez. Tel.: 620 036 888.

GAZTE INFORMAZIOA Gazte Informaziorako Bulegoa

Manuel Lekuona kulturetxea • Tel.: 943 376181
www.gipuzkoagazte.info

Administrazioko ofizial bat burlatako udalean

Burlatako Udaleko Kulturaren eta Festen Udal Patronatuan Administrazioko Ofizial lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa. Bete beharrekoak: Batxillergoko edo Bigarren Graduko Lanbide Heziketako titulua eta EGA edo baliokidea izatea. Izena emateko azken eguna martxoaren 9a. Informazio gehiago: Burlatako Udalean, Benten Erronda, z/g; tel: 948 136420; e-maila: cultura@burlada.es; web orriak: http://www.navarra.es eta http://www.burlada.es.

Erabiltzaileari kasu egiteko eta instalazioa kontrolatzeko 5 lanpostu

Erabiltzaileari kasu egiteko eta instalazioa kontrolatzeko 5

postu; 4 postu txanda librean eta 1 ezgaitasunen bat dutenen txandan.. Bete beharrekoak: goi mailako batxilergoa, LH II edo baliokidea; hizkuntz eskakizuna, 2.a, nahitaezkoa; 16 urte beteta izatea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako; ezgaitasunen bat dutenentzako txanda: aurreko betekizunak gain, ezgaitasunen bat dutenentzako gordetako plazetarako lehiatzen direnek agiri bat aurkeztu behar dute, ezgaitasuna dutela eta ezgaitasun horren maila %33koa edo handiago dela erakusten duena. Izena emateko azken eguna otsailaren 27a. Informazio gehiago Donostiako Udal Kirol Patronatuan, Anoeta pasealekua, 18. Carmelo Balda pilotalekua; telefonoa 943 481850.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: S5513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com. Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Oria Beheko Hodi-biltzaileak Loiolara bideratuko ditu ur zikinak

TXINTXARRI

Estatuko Aldizkari Ofizialak joan den otsailaren 4an argitaratu zituen Oria Beheko hodi biltzailea edo Usurbil-Lasarte-Oria - Hernani kolektorearen (27.181.303,5 euro) eta obra horien zuzendaritza teknikorako laguntzaren iragarkia (1.861.600,26 euro).

Eskaintzak aurkezteko epea hurrengo martxoaren 30eko 12:00etan amaituko da, eta plikak irekitzeko egintza publikoa apirilaren 29an izango da Ingurumen eta Landa eta Itsas Ingurunerako Ministerioaren Uraren Zuzendaritza Nagusiaren bulegoetan.

Oriatik Loiolara

Oria Beheko Hodi biltzaileak Lasarte-Oriako eta Usurbilgo isuriaren bilketa egin eta Loiolako Hondakin-Uren Araztegia (EDAR) garraiatuko du, bertan tratamendu egokia burutu eta, ondoren, Mompaseko urpeko hustubidetik itsasora isurtzeko.

Kolektoreak urak grabitate sistema edo bitarteko bultzada sistemaren bidez Hipodromoko zubia ondoan egongo den ponpaketa estazioan Usurbil, Zubietan eta Lasarte-Oriako hondakin-urak bilduko ditu eta, ostean, Urumeako kolektorera bideratu.

Saneamendu azpiegitura berri honek 25.000 biztanle



Azpiegitura berri honek Lasarte-Oria, zein Usurbilgo 25.000 biztanle ingururen hondakin-uren isuria saihestuko du Oria ibaian.

ingururen hondakin-uren isuria saihestuko du Oria ibaian. Horrek ingurumen onura suposatuko du bai ibaian bertan eta baita ibai-ahoko hondartzetan.

Lanak

Proiektuak 13.712 metro kolektore hodi izango ditu, lau ponpaketa estazio eta bederatzi erauntsi deposito. Honetarako, Oria ibaiko bi

ertzetan, Usurbilen, Lasarte-Orian, Zubietan eta Hernaniko Sorgintxulo, Antziola eta La Florida auzoetan lanak egingo dira.

Hauek Kantabriako konfederazioa hidrografikoak esleitu behar ditu eta aurreikuspenen arabera 4 urte iraungo dituzte. Baina Añarbeko mankomunitatik jakin arazi dutenez, herrietan beste eratako lanak

egitean sartu dituzte hodiak, beraz lanen iraupena motzagoa izango da.

Lanak bukatzean, Añarbeko Ur Mankomunitatea osatzen duten hamaika herrien hondakin-ur guztiak Loiolako araztegia bidaliko dira. Era berean, Donostialdeko saneamendu-sarearen eskema orokorra amaitutzat emango du Ur Mankomunitateak. •

SINADURA BILKETA

Nagore Laffage kasuarengatik

Lasarte-Oriako Udalak bat egin nahi izan du Nagore Laffage, 2008ko uztailean Iruñan eraildako Irungo neska gaztearen senideek egindako deialdiarekin.

Eraiketaren egileak Legeak ezarritako gehieneko pena betetzeko martxan dagoen sinadura bilketaren aurrean, Udalak deialdia luzatu nahi die herritar guztiei aipatutako dokumentua sinatzeko.

Horretarako, otsaileko hila-bete honetan zehar Udaletxeko beheko solairuan dagoen Erregistro Orokorretik edo Villa Mirentxun dauden Gizarte Zerbitzuetatik pasa ahal izango da, 9:00etatik 13:30era. •

HONDAKINEN LEGEA

Lasarte-Oria Bizirik Zumaburrun

Lasarte-Oria Bizirik taldeko kideak hondakin lege baten aldeko sinadura bilketa burutzen ari dira herrian. Dagoeneko Okendo plazan, Zabaletan eta Kotxerasen egon dira eta herritarrek gaiarekiko duten jakinmina egiaztatute.

Bihar larunbata, Zumaburruno auzoaren txanda izango da. Taldea, goizeko 11:30etatik 13:30etara egongo da auzotarren sinadurak bildu eta gaiari buruzko azalpenak emateko. •

Tormesko Lazaro txikia eta Lepel, umeentzat ikusgai

Manuel Lekuona kultur etxeak haurrentzako antzezlan eta film bana eskainiko du asteburuan, euskaraz.

Bihar, hilak 14, Malas Pulgas taldeak *Tormesko Lazaro txikia* ekarriko du Lasarte-Oriara. Antzerki talde honek esperientzia handia du ipuin klasikoak era komiko eta ulerterrazean kontatzen, haurrak erakarri eta irakur dezaten animatzeko. Oraingoan, gaztelaniazko literaturaren klasiko handi bat moldatu dute.

Lasarte-Oriako umeek Tormesko itsumutilaren bihurrikeriak ezagutzeko aukera izango dute bihar, beraz, 18.00etatik aurrera.

Iganderako, film bat

Igandean, berriz, *Lepel* filma izango da ikusgai kultur etxean bertan, 17.00etan. Tinkok euskaratu du Herbehere-tako lan hau, eta joan den



Asteburuan kultur etxean izango diren emanaldien kartel bana.



Donostiako Zinemaldian estreinatu zuten.

Lepel bederatzi urteko mitikoaren gorabeherak kontatzen ditu filmak. Bere gurasoak desagertu egingo dira, eta Koppenol amona maltzurak esklabu moduan hartuko du Lepel txikia. Filmak hain-

bat sari jaso ditu, Herbehere-tan eta Alemanian, batez ere.

Tormesko Lazaro txikia nahiz *Lepel* ikusteko sarrerak kultur etxeko harreraren daude eskuragai, eta baita emanaldien egunean bertan ere, leihatilan. 3,15 euro balio du sarrera bakoitzak. •

Txileko ekonomia ministroa Usurbilgo Lanbide Eskolan

Txileko Ekonomia Ministroa, Hugo Lavados Montes Jaunak, Usurbilgo Lanbide Eskolan Energia Bereiztagarrien ikasketak egiten ari den txiletar taldea bisitatu zuen lehengo astean.

Ikasle hauek, Patxi Vaquerizo zuzendariarekin batera, ikasketa prozesuaren berri eman zioten eta Ministroak formakuntza hau Txilerako zein baliagarria den azpimarratu zuen.

Nazioarteko ekimenak

Zubietako eskolak, ikasturte honetan nazioarteko ekimen ugari gauzatu ditu. Egun, aipaturiko txiletarrez gain Kolonbiako beste ikasle talde bati formakuntza ematen dio.

Martxotik aurrera Txileko Zuzendari talde bati ere formakuntza emango dio hainbat saio Valparaisoan zein Usurbilgo Lanbide eskolan garatuz. •



Arg: Usurbilgo Lanbide Eskola

‘Hasieran lana bideratzea da zailena ’

Nora Izagirre diseinatzaileak ‘Noticias de Gipuzkoa’ egunkariak ematen duen Haize Berria saria jaso du orain gutxi. Duela bi urte eta erdi bere bilduma propioak merkaturatzeari ekin zion, Maitane ahizparekin batera.

Amaia PORTUGAL

Modaren munduan tartea egiten ari da pixkanaka Nora Izagirre diseinatzaile lasarteoriarra. 2007an ekin zion bere marka ezagutzera emateari, eta honez gero Euskal Herriko, Kataluniako eta Espainiako hainbat dendatan topa daitezke haren jantziak. Lasarte-Orian bertan ere bai, Kale Nagusiko Alazne dendan. Haize Berria saria jaso berri du, hark esan duenez, “emozionatuta”.

Ezustekoa izan al zen?

Bai, sorpresaz sorpresa joan zen dena. Hasieran esan zidaten lehiaketa bat zegoela eta ni proposatuko nindutela sari-rako. Gero nire lanak erakutsi behar izan nituen, eta orduan esan zidaten bost finalisten artean nengoela. Azkenean, galan bertan esan zidaten irabazi nuela, eta sorpresa handia izan zen. Bartzelonan edo Parisen normalak dira modari buruzko sariak, baina hemen ez dago ezer! Hemen, ez daukagu kontakturik beste diseinatzaileekin. Alde batetik ona da, bestek baldintzatu gabe lan egiten dugulako. Baina bestetik, batzuetan ondo dator besteekin harremanetan izatea.

Nolakoa da zure estiloa?

Zerbait berezia izatea nahi izaten dut, baina era berean

“ Zerbait berezia baina era berean edozeinek jantzi dezakeena egin nahi izaten dut

edozeinek jantzi dezakeena. Batzuek ezkontza batera joateko erabiltzen dituzte nire diseinuak, eta beste batzuek egunerokorako.

Zerk inspiratzen zaitu diseinatzeke orduan?

Niri beti gustatu izan zaizkit loreak, koloreak ondo tratatzea... Baina gaiak, hain izan daitezke desberdinak! Adibidez, agian une batez patinatzen ari den neska batengan pentsatzen dut, eta hark irudi bat ematen dit.

Parisen, Bartzelonan... ibili zara. Jendeak arropa desberdina jantzen al du toki batzuetan eta besteetan?

Bai. Parisen lehen aldiz egon nintzenean atentzioa eman zidan denek beltzez jantzeko zuten joera. Bestalde, agian duela hamar urte edo gehiago, han jendeak kaleko arropa eta kiroltako oinetakoak eramaten zituen, eta horrek ere atentzioa eman zidan; hemen oraindik ez zen ikusten horrelakorik. Orokorrean



Nora Izagirre, ondoan bere diseinu bat duela, Geltoki kalean duen tailerlean.

nahiko klasikoak gara hemen. Bartzelonan, berriz, fantasia puntu handiagoa dute, jendeak gehiago arriskutzen du.

Ibiltokietan, jantzeko ezinezkoak diruditen diseinuak agertzen dira askotan. Zer iruditzen zaizu?

Egia da, baina pasarelan ikusten dena ez dago kalean eramateko pentsatuta. Sortzaile batek bere sormena ahal den urrunen eramateko pentsatuta dago. Hori, noski, kalera itzuli behar da gero. Hori egiteko aukera izatea zorte handia da. Nik oraintxe bertan ezin dut hori egin, baina gustatuko litzaidake. Sortzaile batentzat aberasgarriagoa da.

Duela bi urte eta erdi hasi zinen zure kabuz lanean.

Zaila izan al zen dena martxan jartzea?

Zailena lana bideratzea da. Hasieran nondik bideratu, honetaz bizitzeko nola egin, oso ondo ez nekiela nengilen. Orain beste zailtasun batzuk ere badaude, negozioa mantentzea adibidez, baina lasai nago.

Aurtengo zure bildumaren argazkiak hipodromoan ateratakoak dira. Zer dela eta?

Gu Hipodromoaren etorbidean bizi izan gara beti, eta gainera, hemen inguruko lekuetara jotzen saiatzen naiz beti argazkiak ateratzeko. Behin hipodromoan joan ginen familiarekin, probak egiten ibili ginen, eta horrela bildumarako sesioa bertan egitea erabaki genuen.

Irakasle onak

Nora Izagirrek Arte Eder-erak ikasi zituen Leioan, eta azken urtean Parisera joan zen. Bartzelonako Modaren Arte eta Tekniken Eskolan sartu zen gero, eta ibilbide oparoa hasi zuen. Josep Font eta Elisa Ammanentzat egin zuen lan lehenik. Parisera itzuli, eta Hermes eta Lolita Lempickaren tailerretan aritu zen. Jarraian Euskal Herrira etorri zen. Philippe Laporteren zentzuan egin zuen lan, Iruñean, eta azkenik, Cold Alaska eta Individual markentzat, Donostian. •



ANAIK

JANTZI-DENDA

BEKERAPENETAN GAUDE

Kale Nagusia 25 · Tel.: 943 362386 · LASARTE-ORIA



Argazki erakusketa sentsibilizazio bide

■ Herriko hainbat talde minen biktimen bizitzetan murgilduko dira bisitei esker

TXINTXARRI

Ana Urchueguia Lasarte-Oriako alkatea, Jone Altuna Kultura batzorde burua eta Iñaki Mujika alkate ordeak Gervasio Sanchez argazkilaria *Vidas minadas, diez años* proiektuaren aurkezpena egin zuten astelehenean. Proiektuak hainbat herrialdeetan egindako argazkiak biltzen ditu liburu eta erakusketa batean. Helburua pertsonen aurkako minen ondorioak erakustea. "Gainera, hauetako argazki bategatik Ortega y Gasset saria eman berri diote Gervasio Sanchez-i," aipatu zuen Lasarte-Oriako alkatea.

Egun hauetan Manuel Lekuona kultur etxeaz ikusi daitekeen argazki erakusketa, Euskal Fondoak antolatutako erakusketa ibiltaria dugu. "Euskal Fondoak osatzen dugun Udal askok eskatu dute erakusketa hau eta lau hilabete itxaron behar izan dugu Lasarte-Oriara iristeko," azaldu zuen.

Egoera

Pertsonen aurkako minen egungo egoeraz eta Otawako tratatuaz ere mintzo zen Lasarte-Oriako alkatea.

"Pertsonaren aurkako minak oso erabiliak izan ziren guda garaian zenbait gunetan. Nazioarteko legeak hauen erabilera debekatu zuen, baina urteko gutxi gora behera 20.000 egiten dira. Azken urteetan 58.000 biktimek pairatu dituzten mina hauen eztandaren ondorioak. Izan ere, guda bukatu eta

oraindik minak ezarriak baitaude. Urteak pasa, bertan utzi eta ondorio latzak sortzen dituzte pertsonengan. Afganistan, Burundi, Irak, Angola, Camboya eta Kolonbia dira herri kaltetuak eta, gainera, Kongo, Sierra Leona, Liberia, Somalia eta Burundin biktimen %86a neska eta mutil gazteak eta haurrak dira," azaldu zuen.

"1997an pertsonen aurkako minen aurkako tratatua adostu zen Otawan. Espainiak sinatu zuen eta honekin batera beste 151 herrialdeek ere. 40 herrialdek ez dute oraindik sinatu eta 5 herrialdea tratatutik kanpo ari dira, 160.000 pertsonen aurkako mina batzen dituzte guztien artean, eta hauetako hiru, EEBB, Errusia eta Txina dira," atxiki zuen Lasarte-Oriako alkatea.

Bisitak

Bisituen garrantzia azpimarratu zuen ere, "Aitor Moreno, erakusketako arduraduna, Lasarte-Oriako talde eta ikastolekin harremanetan jarri eta bisita gidatuak egingo dira. Era honetara, herritarrek pertsonen kontrako minen ondorioak ezagutu ditzaten."

Gainera, ikastola batzuetan eztabaida egon dela aipatu zuen, "argazkiak berrituz izan daitezkeelako sortu da eztabaida hori. Baina errealista izan behar da. Ez dugu ezer asmatu, gudak existitzen dira eta bere ondorioak hor daude. Nik uste dut adin batzuetan, 8 edo 9 urterekin, hezkuntza eta sentsibilizazioari esker,



Ana Urchueguia alkatea, Jone Altuna Kultura batzorde burua eta Iñaki Mujika alkate ordeak proiektuaren aurkezpenan.

munduko beste herrialdeetan gertatzen ari dena ulertzeko gai garena".

"Ez da jende multzo handia etorri eta ikusteko erakusketa, baizik eta haur eta helduei zuzendutako sentsibilizazio erakusketa da. Aitorren gidatuta eta bere azalpenak jarraituz ulertu daitekeena. Ez da pintura erakusketa," esan zuen Ana Urchueguia.

Honela, euskaraz, zein gazteleraz Institutoko DBH4ko gaztetxoak izan dira erakusketari bisita egiten lehenak. Hurrengo egunetan, DBH3ko, Zaharren egoitzeko, Udal euskaltegiko eta Emakumeen Zentro zibikoko taldeak ere hurbilduko dira kultur etxera. Baina kooperazio sailetik jakin arazi digunez, oraindik bisitak zehazteko daude.

Liburua

Honetaz gain, Gervasio Sanchez argazkilaria *Vidas minadas 10 años* liburua ere aurkeztu zuten. Liburua salgai egongo da bisitetan eta beste edonork nahiez gero, Kooperazio departamentura hurbildu eta erosi ahalko du. "Irabaziak Gervasio Sanchezek bera egin duen proiektura bideratuko dira. Liburu hau hirugarrena da eta oso ongi ikusten da, erakusketaren antzera, familien garapena duela hamar urtetik hona," adierazi zuen Ana Urchueguia. •



Kiroltako agenda

FUTBOLA

Larunbata 14

10:30ean, Ostarar-Eibartarrak (Emakumezkoen KDT F-II, txapeladunen fasea) Michelinen.

12:00etan, Ostarar-Bergara (Infantilen Ohorezko maila, kopa) Michelinen.

15:30ean, Ostarar-Elgoibar (Ljubenila, igoera fasea) Michelinen.

17:15ean, Texas Lasartearra-Eibartarrak (II. Erregionala, kopa) Michelinen.

16:00etan, Segura Goierri-Ostarar (II. Erregionala, igoera fasea) Alustiza, Seguran.

Igandea 15

10:30ean, Ostarar-Elgoibar (Kadeteen Ohorezko maila, kopa) Michelinen.

10:00etan, Hondarribia-Ostarar (Infantil Txiki Kopa) Ondartza, Hondarribin.

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 14

16:00etan, Pinturas Etxadi-ISU Leihoak (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Astigarragan.

HERRIKO TXAPELKETA

Michelin edo frontoian

09:10ean, Buenetxea-ISU Leihoak

10:00etan, Biyona-Oria Txiki

10:50ean, Oria kris.-Tragoxka

11:40ean, Morrison-Ainhoa

12:30ean, Izkiña-Obelisk

13:20ean, Epel-Okela

14:10ean, Izarra-Viña del Mar

15:00etan, Siglo XX-Katanga

Igandea 15

10:30ean, Aldaz H.K.-Aurrera de Vitoria C.D. (Euskal Liga) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

Michelin edo frontoian

10:00etan, Jordi-Mayi

10:50ean, Ilargi-Lurra XXI

11:40ean, Danena-IOB H.K.

FUTBOL 8

Larunbata 14

9:00etan, Axular Lizeoa-Lasarte BHI (eskolarreko infantilak) Rezola, Añrgan.

FUTBOL 7

Larunbata 14

18:30ean, Niasa-Corpa-Tximauk Garbera (III. Maila) Zubietan.

SASKIBALOA

Larunbata 14

16:00etan, Ainhoa-Erroibide Irun (Gizezko seniorrak) Kiroldegian.

PILOTA

Larunbata 14

16:00etan, Intza 2-Azkoitiko 3 (Eskuz binaka, infantilak) Michelinen.

16:00etan, Urnieta 3-Intza 3 (Eskuz binaka, infantilak) Astigarragan.

16:00etan, Intza 1-Oiarpe 3 (Eskuz binaka, infantilak) Urnietan.

BOLA-JOKOA

Igandea 15

10:00etan, Ostararreko bolo sailak bikotekako txapelketan parte hartuko du, Usturbilan.

JUDO

Larunbata 14

17:00etan, Iñaki Elizalde LOKEko judokak Junior mailako Espainiako txapelketako Ipar-ekualdeko sailkapen lehiaketan parte hartuko du, Tuteran.



Aldaz H.K. lehenengo postuaren bila Euskal Ligan

Nork esango zion denboraldi hasieran Aldaz H. K. igo berriari Euskal Ligan lehenengo postua eskuratzeko lehian sartuko zela.

Duela bi jardunaldi, Gallartan M. Petronoren partida 2 eta 1 galdu eta bigarren postura jaitsi ziren lasarteoriatarrak, La Bellota taldearekin puntu berdinketa zela eta.

Lehenengo astean, berriz, bina berdindu zuen Beti Arin taldearen aurka Durangon eta puntu horrekin hirugarren postua eskuratzeko ekarri zuen.

Postua berreskuratu

Hala ere, Aldaz H. K. taldeko mutilek sailkapeneko lehenengo postua berriro ere eskuratzeko aukera dute igan-



Irudian, Aldaz Buenetxearen aurkako partidari.

de goizean kiroldegian jokatuko den partidari.

Etxean jokatzeak gauzak errazten ditu, baina Aurrera

de Vitoria taldearen aurka garaipena lortu beharko du Euskal Ligako sailkapenean lehena izateko. •

Play offa gertuago herriko txapelketan

Ostararrekin antolatzen duen, Herriko Areto Futboleko txapelketari heren bat falta zaio play offa iristeko, hau da 7 jardunaldi.

Urriari hasi eta apirilaren 3an bukatuko den lehenengo fase honetan, 22 talde ari dira lehia bizian sailkapeneko lehenengo zortzi postuetan egoteko. Izan ere, zortzi horiek sailkatuko baitira play offa jokatzen. Egun zortzi talde horiek ISU Leihoak, Buenetxea, Izkiña, Jordi, Biyona, Izarra, Ainhoa eta Lurra XXI dira. Baina arestian esan bezala, jardunaldi dezente geratzen dira oraindik eta ziur talde guztiek arrastoa emango dutela. •



Kiroldegiko ordutegia neguan

Kirol Zerbitzuak gogora arazi nahi du, joan zen irailaz geroztik, Udalaren Kiroldegia- ren ordutegia zabaldu egin zela, udalaren kirol instalakuntzetako erabiltzaileek planteatutako beharrak asetzeko asmoz.

Ordutegiaren zabaltze honek eguerdi parteko orduetan du eraginik nabarmenena.

Aldaketa honen ondorioz instalakuntzen ordutegi berria, ekaina bitartean, ondoko hau da:

Igerilekua, astelehenerdik ostiralera 7:00tik 12:30era


eta 14:00tik 21:30era; larunbatetan 9:00tik 13:00ra eta 16:00tik 20:00ra, eta igandeetan 9:00tik 13:00ra.

Sauna, astelehenerdik ostiralera 9:00tik 12:30era eta 15:00tik 21:00ra; larunbatetan eta igandeetan 9:00tik 13:00ra.

Beste instalakuntzak, hala nola, tatamia, gimnasialekua, kirol anitzen pista, gela kardiobaskularra, muskulazio-gela edo squash pistak, astelehenerdik ostiralera 7:00tik 22:30era; larunbatetan 9:00tik

20:00ra, eta igandeetan 9:00tik 13:00ra.

Kiroldegiak kudeatutako trinketea, astelehenerdik ostiralera 7:00tik 22:00ra; larunbatetan 9:00tik 20:00ra, eta igandeetan 9:00tik 13:00ra. •



Kiroltako oharrak

XV. Pala Txapelketa

Ostararrekin jakinarazi nahi du XV. Pala Txapelketarako izena emateko epea gaur bukatzen dela. Beraz, parte hartu nahi duten bikoteek Ostararreko bulegotik pasa behar dira izena emateko, astelehenerdik ostiralera, 16:00etatik 20:00etara, edo 943360433 telefono zenbakira deituta.

Bestalde, antolatzaileek bilera bat egingo dute asteazkenean, otsailaren 18an, arratsaldeko 19:00etan Ostararreko bule-

goan, Geltoki 25, lehen Iparragirre zapata denda zen lekuan. Biler horretan taldeen zozketa egingo dute eta bikoteen artean txapelketako egutegia banatuko dute. Bilerara bikote kide bat behintzat agertzea komenigarria litzateke.



Egunero

Erakusketa

ZILÖ, herriko artistaren "The Artificial Smile Company" margo erakusketa. Jalgi kafe-antzikian, egun osoan zehar.



Erakusketa

VIDAS MINADAS, 10 AÑOS DESPUES, Gervasio Sanchezen argazki erakusketa. Asteleheneetik ostiralera irekia. Kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

Ostirala, 13

Bakarriketa

MOVIMIENTO BOLA taldeak bakarriketa komikoak eskainiko ditu. Naiban tabernan, 23:30ean.

Larunbata, 14

Antzerkia

TORMESEKO LAZARO TXIKIA antzezlan Malas Pulgas antzerki taldearen eskutik 5 urtetik gorako haurrentzat. Sarrera: 3,15 euro. Kulturetxean, 18:00etan, **EUSKARAZ**

Igande, 15

Zinea

LEPEL haurrentzako filma. Sarrera: 3, 15 euro. Kulturetxean, 17:00etan, **EUSKARAZ**

Osteguna, 19

Kontzertua

MUSIKA eskolako ikasleek kontzertu bufoa eskainiko dute. Kulturetxean, 19:00etan



Rythm & Bluesa Stay Blues taldearen eskutik

Ostirala, 13

Jam sesioa

STAY BLUES laukoteak blues eta rythm & blues doinuak eskainiko ditu Jalgi jam sesiora. Ohikoa den bezala, taldea hasiko da abestiak lantzen, eta pixkanaka, nahi duenak oholtzara igo ahal izango du bere aportazioak egiteko.

GAUR OSTIRALA 22:30ETAN
JALGI KAFE-ANTZOKIAN

Zinea

Los Limoneros filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera: 4,15 euro. Manuel Lekuona Kulturetxean, 22:00etan.

Ostirala, 20

Kontzertua

MUSIKENeko flauta taldeak eskainiko du kontzertua

Danak Kide elkarteak antolatutako IV. Topaketa Musikalen barruan. Brigitarren komentua, 19:30ean.

Kontzertua

ANA VALENTINA trioren kontzertua Udaleko Gazteria Sailak eta Xpressionk zirkuituak antolatuta. Manuel Lekuona kulturetxeko kafetegian, 20:00ean.



Autobusa AC-DC ikusteko

AC-DC taldeak, martxoak 31 astearte, Bartzelonan eskainiko duen kontzertura joateko autobusa antolatuta da. Oraindik ez dago irteera lekua zehaztua, baina Donostia edo inguruko herri batean izango litzateke. Autobusa goizeko 9:00etan aterako da Bartzelonarantz eta kontzertu ostean, bueltatuko da. Joan-etorria 50 euro dira eta eserleku kopurua mugatua da. Bidaieren berri gehiago jakiteko bus_acdc@hotmail.com helbide elektronikora bidali mezua.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
txintxarri@txintxarri.info
www.txintxarri.info

Oharrak

Mus Txapelketa Lasarte-Orriko

Lasarte-Orriko Elkarteak jakinarazi nahi du irekita dagoela XXXII. Mus Txapelketan izena emateko epea. Interesa dutenek elkartetik pasa daitezke otsailaren 22a bitartean.

Bizilagunen Elkarteak marrazketa eta pintura eskolak

Lasarte-Orriko Bizilagunen Elkarteak jakinarazi nahi du marrazketa eta pintura eskolatan lekua badagoela. Interesa dutenek izena emateko, asteazkenetan eta ostiraletan egin behar dute arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara kulturetxeko bigarren solairuan.

Euskal Inauterien entsaioak

Euskal Inauterien konpartsako

Eskutitzak

Prieto Andreari

Erantzun egingo dizuet LOH-Pren azken panfletoan niri buruz egin diren adierazpenak direla eta.

- Defendatu nuen ohiko Plenoak hilero izatea eta arratsaldean (eta etorkizunean berriro ere egingo dut). Bere garaian, gobernu programaren negoziaketako beste gai batzuk bezala, ez zen aurrera atera. Negoziketaren batean inork ez du bere proposamenen 100% aurrera ateratzen. Benetan, ez da horren garrantzitsua. Landu diren gaien arabera, edo sortu duten morboaren arabera, pleno aretoa bete-betea egon da goizez, arratsaldean izan balitz bezala.

- Nire sentsazioa ez da lan zikina egiten dudala beste talde batzuen proposamen edo emendakinak kritikatu edo eztabaidatzeagatik. Pentsatzen dudana esaten dut Ezker Batua-Berdeak taldeko bozeramailea naizen bezala. Bestalde, ezin dut ulertu nola esan daitekeen nirekin ez doazen gaiak daudela. Suposatzen da Udaletxean planteatzen badira talde guztiok dugula zerikusia, nirena barne, EBri gestionatzea dagozkion sailtakoak izan edo ez.

- Ondorengo gaietan eragozpenak ikusten dituenak ez du ezer ulertzen: beste talde batzuek baino boto gutxiago lortu izana guk bulego bat edukitzeko garaian -txikia gainera-; lehendakaritza izatea ez batzorde batean, bai- zik eta bitan (Euskara eta Ingurumen, Merkataritza, Kontsumo eta Osasuna); aholkulari baten laguntza izatea, ez idazkari bat. Legealdi honetan ardurak banatu dira gobernu akordio batera iristeko gai izan diren taldeen artean. Ez beste legealdi batzuetan bezala, non akordiorik gabe eta ordezkari politikoak kontuan hartu gabe, beste talde batzuei utzi zitzaizkien batzorde batzuetako lehendakaritzak, eta hauek onartu egin zuten. Logikoa dirudi zenbait ardurak hartuko dituenak horiek betetzeko gutxieneko batzuk izatea. Kontua ez da "dagoeneko bitarteko horiek lortu izana", bitarteko horiek ez baitira helburu bat.

- Joan den legealdian eta beste batzuetan osotasuneko emendakinak (eta partzialak) aurkeztu nituen, bai, gobernuaren proposamenak hobetzeko asmoz eta ezkerreko politika alternatiboak zeudela agerian uzteko. Orain, gobernuan egonda, itunduta-

ko programa baten ondorioz eta aurrekontuaren eta ordenantza fiskalen proiektuak negoziatu ondoren, noski ez dudala osotasuneko emendakinik aurkezten. Gauza bat da nire koherentzia zalantzan jartzea, baina niregandik autoemendakinak espero izatea, hori sen ona galtzea da.

- Joan den legealdian kontrabozkatu nituen hitzarmen urbanistikoei dagokienez, lehenengo eta behin hori esan behar da, joan den legealdian bozkatu nituela, ez oraingo honetan. Dena den, askotan esan dudana moduan, nire kontrako jarrera ez zen ordenamendu fisikoagatik, baizik eta ondareko edukiarengatik, nire ustez, interes pribatuei mesede gehiago egiten baitziren udal interesei baino. Niri ez zait zoragarria iruditzen 16 altuerako eraikin bat egitea, oso gai polemikoa izan daitekeela ulertzen dut. Baina edozein kasutan, aprobetxamendu urbanistikoa horien banaketa fisikoa ez dator hitzarmen urbanistikotik, baizik eta Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak duen irizitik Brigidarren ingurura duen babes erregimenaren dela eta.

- Amaitzeko, koherente izatea leporatzen didate "soldada, bulegoa eta idazkaria" jarri didanarekin. Bulegoarena eta aholkulariarena argituta (ez idazkaria), soldatarena argitzea besterik ez litzateke geratuko. Zer hobeto orain urtebete esaten nizuena gogoraztea baino: "Berriro ere azaldu behar dut ni ez nagoela liberatuta Udalarerako karguarekin...". Zerbitzu aktiboko egoeran jarraitzen dut EHEAko Administrazio Orokorrean, non funtzionarioa naizen. Esleituta dauzkan ordainketa bakarrak danda zinegotzi guztiak dituztenak Pleno eta Batzordeetara joateagatik, gehi osagarri bat Gobernu Batzarreko kide izateagatik. Ordainketa hauek, Ezker Batuko kargu publikoen estatutuaren arabera, ez ditut nik jasotzen, izan ere, partidura abonaten dira zuzenean.

Eta San Markos Mankomunitateko lehendakari karguari dagokionez, ordaintzen ez den kargu bat da.

Espero dut behingoz jabetzea eta lehengoetara ez itzultzea nire irudi publikoari kalte egiten saiatuz, existitzen ez diren interes ekonomikoak egotzen. Argi dago batzuei kosta egiten zaiela ulertzeko beste batzuk bokazioz gaudela politikan eta ez interesengatik.

Ricardo Ortega
Lasarte-Orriako Ezker Batua-Berdeak taldeko zinegotzia

Urraketak salatzea, gero eta errazago

■ Lasarte-Oriako euskaldunek hizkuntz eskubideak errespetatu daitezkeen aldarrikatzeko beste bitarteko bat dute orain, Behatokiak Urbilen jarritako postontziari esker

TXINTXARRI

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak euskaldunen kezak jasotzeko postontzia jarri berri du Urbil merkataritza gunean, kutzazainen ondoan.

Behatokiak Usurbilgo Udalarrekin elkarlanean abiatu du ekimena, baina Xabier Mikel Errekondo Usurbilgo alkateak asteartean emandako prentsaurrekoan azaldu bezala, edozeinek du buzoi hori erabiltzeko eskubidea. Hemendik aurrera lasarteoriarrek merkataritza gunean bertan salatu ahal izango dituzte euskarari buruzko urraketak.

Ekimen hau Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) kide diren 20 herritan dago martxan. Merkataritza gunean jarritakoaz gain, beste hiru postontzi daude Usurbilen: udaletxean, *Noaua!* aldizkariaren egoitzan eta Sutegi kultur etxean. Errekondok "euskaldun



Jabi Elizasu (Oiarzun), Xabier Mikel Errekondo (Usurbil), Alaitz Aizpurua (*Noaua!* aldizkaria), Paul Bilbao (Behatokia) eta Iñaki Arregi (UEMA), postontzia aurkezten.

izateaz haratago" joateko eskatu zien herritarrei, eta buzoi hauetan urraketak salatzeko.

Usurbilgo alkateak esan

zuenez, postontzietako bat Urbilen jartzea ez dute kasualitatez erabaki. Euskaldunen eskubideak ez direla adminis-

trazio publikoan soilik bermatu behar aldarrikatu nahi izan dute horrela: "Kontsumitzaile gisa ere baditugu eskubideak".

Postaz, telefonoz eta Internetez

Merkataritza gunean nahiz beste edonon izandako hizkuntza urraketak sala ditzakete euskaldunek Urbilen jarritako buzoiaren bitartez. Hizkuntz politikan portaera egokia eduki duen edonor zoriontzeko ere erabil daiteke. Postontziaren ondoan dagoen inprimaketako bat bete eta buzoiari sartu besterik ez dago. Izen-abizenak ematea ezinbestekoa da. Kexa egiaztatutakoan, Behatokiak bitartekari lanak egingo ditu, eta baita abokatuak erabili ere, behar izanez gero.

Dena dela, Lasarte-Oriako euskaldunek aspalditik dute Behatokira jotzeko aukera, Urbilera joan gabe. Telefonoz (902 194 332) eta www.euskarentelefonoa.com webgurearen bidez ere bideratzen dituzte kezak. •